

# BOST MINUTUKO IKASTAROA

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

## Gramatika

### GUZTI HAU / HAU GUZTIA

Hauek dira hobesten diren formak:

- *Hauek guztiak, gauza hauek guztiak...*

- *Hauetan guztietan, taberna hauetan guztietan...*

Ontzat ematen dira *hau guz(t)iau* bezalakoak ere. Hala ere, ez dira batasunerako egoki ikusten forma hauek: *\*guzti hauek edo \*guztihauek, \*gizonau*, etab.

Iturria: Euskaltzaindiaren arauak : 4. Araua:

[http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0004.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0004.pdf)

"Hau guztia" ala "guzti hau"? Horra hor gakoa! Euskal tradizioan "hau guztia" da forma nagusia, nahiz eta Hegoaldean "guzti hau", "guzti haietan" eta abar franko errotuak dauden. Baina, azpimarratu beharrekoa da Hegoaldean soilik gertatu dela aldaketa hori, eta, ondorioz, puntu honetan tradizio zaharrean zegoen batasuna hautsi egin dela. Hortaz, "hau guztia" eta "guzti hau" esapideen artean, lehena hobesten du Euskaltzaindiak.

Horixe, "hau guztia" erabili behar da, eta ez "guzti hau". Eta, jakina, horren ondorioz: "etxe horietan guztietan ikusi dut" erabili beharko da, eta ez "etxe guzti horietan". Eta berdin: "lankide guzti horiekin egin dugu bilera" erabili ordez, "lankide horiekin guztiakin egin dugu bilera" erabili beharko da. Edo "bide guzti hartan bildu zituzten botilak" erabili beharrean, "bide hartan guztian bildu zituzten botilak" erabiliko dugu.

Iturria: Euskara hobetzen, "Hau guztia"

# Pasartea

Esther Wojcicki [Creative Commons-en zuzendaritza-taldekoa](#) da. Heziketa-eredu tradizionala kritikatzan du, eta eredu sortzaile eta kritikoaren aldekoa da. Hona hemen haren ideia batzuk:

Pentsamendu kritikoak da etorkizunerako gakoa. Bi datu aipagarri: azterketa bat egin eta bi astera, ikasleek % 32 bakarrik gogoratzen dute; handik urtebera, beharbada, % 5.

Gure heziketari erreparatzen badiogu, gogoratzen ditugu egin genituen gauzak, eta ez memorizatu genituenak. Buruz ikastea alferrikakoa da, ikasten ikasi behar dugu.

Etorkizunerako, ezinbestekoa izango da azkar pentsatzen ikastea, besteekin lankidetzan aritzea eta sortzaile eta kritikoak izatea.

Berri faltsuen eta egia-ostearen garaian bizi gara, eta etorkizuna hobetuko bada, hezkuntzak hobetuko du, baina ez betiko azterketak eginda, baizik eta ikasleak sortzaile eta berritzaile bihurtuta.

Hezkuntza mota horrek balioko du, baita ere, informazioz gainezka dagoen mundu batean nabigatzen ikasteko; izan ere, gehienok ez dakigu bereizten berri faltsu baten eta erreal baten artean.

[https://elpais.com/tecnologia/2017/07/09/actualidad/1499566601\\_804024.html](https://elpais.com/tecnologia/2017/07/09/actualidad/1499566601_804024.html)

Sonia Corona

El País

# Musika



[Gatibu - Aske Maitte](#)